

## **START INNOVA PROIEKTUA**


Jon Auzmendi, Javi Castaño, Alex Echarri eta Javi Castaño.

### **FUNTSEZKO JARDUERAK:**

Edozein negozio eredutan bezala, hainbat funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira enpresak ondo jardun dezan gure enpresaren kasuan bezala.

Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtzesko jarduera ere ezinbestekoak dira berezko proposamenak egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eta diru sarrerak eraikitzeko.

Gure enpresaren kasuan, orokorrean, lehendabizi informazioa lortuko dugu amia azterketaren bidez eta horri esker, merkatuaren segmentazio bat egingo dugu talde batera edo bestera bideratzeko, gure kasuan guztientzako izango da produktua. Informazioa lortzeko, bigarren mailako iturriak lortuko ditugu. Informazio iturri hauek, beraren ezaugarria den bezala, ez dugu zuzenean lortuko eta beste iturri batzuetatik baliatuko gara hau lortzeko. Kanpoko eta barneko informazioa lortuko dugu. Barnekoari dagokionez, bolumen periodikoak eta prezio politika ezberdinen aurrean salementen bilakaera ikusiko dugu eta kanpokoari dagokionez, beste erakundeek (Publikoak zein pribatuak) lortutako informaziotik baliatuko gara gure proiektua aurrera eramateko.



Bigarrenik, konfiantzako hornitzaile batekin kontaktatuko dugu materialak lortzeko eta gero horrekin gure produktua sortzeko (saiatuko gara materialak merke eta kalitate onekoak izatea ondoren etekinak lortu ahal izateko).

Azkenean, enpresen helburua aberastasuna lortzea da eta gure helburua berdina izango da, zeren azkenean enpresa baten iraunkortasuna etekinen arabera lortzen da eta are eta askoz gehiago enpresa pribatu bat bada; gure kasua den bezala. Gure industria sortuta dugunez, produktuak sortzen hasiko gara ekoizkertasun konstante batekin, horri esker, koordinazio eta planifikazio on batekin, laister iritsiko dira etekinak gure produkzioa handia eta kalitatekoa izango delako. Behin gure produktuak sortuta ditugula, enpaketatzen hasiko gara eta gure salmenta denda printzipaletara eramango dugu gure garraiobide propio batekin (Hau da, gure enpresak garraiobide propioa du, gure kamioi propioak ditugu gure produktuak dendetara eramateko). Gainera, gure produktuak erakusteko edo ezagutzera eramateko hainbat propaganda plangintza egingo ditugu. Bai telebistan, bai irratian, bai sare sozialetan, bai kalean posterrak ipintzen...

